

MODULUA: ESKOLA GAITASUNAK ETA EUSKAL CURRICULUMA

IKASLEARENTZAKO GIDA – LEHEN HEZKUNTZA

Zentroa: Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, Gasteiz

Moduluaren izena: Eskola gaitasunak eta euskal curriculuma

Ikasturtea: 2018/2019. 3. maila.

MODULUKO IRAKASLEAK

LEHEN HEZKUNTZA			
Natur Zientziak LH-ko Ikasgelan II	Arantza Rico Aritz Ruiz Ainara Achurra	arantza.rico@ehu.eus aritz.ruiz@ehu.eus ainara.achurra@ehu.eus	B7 bulegoa B9 bulegoa PDI 01 bulegoa
Gizarte Zientziak eta bere Didaktika II	Anabel Ugalde Janire Castrillo	anaisabel.ugalde@ehu.eus janire.castrillo@ehu.eus	1.5 bulegoa PDI 02 bulegoa
Gorputz Hezkuntza eta bere Didaktika	Judit Martínez Alfredo López de Sosoaga	judit.martinez@ehu.eus alfredo.lopezdesosoaga@ehu.eus	PDI 03 bulegoa 2.11 bulegoa
Atzerriko Hizkuntza eta bere Didaktika	Dorota Krajewska Larraitz Ariznabarreta	dorota.krajewska@ehu.eus larraitz.ariznabarreta@ehu.eus	B4 bulegoa PDI 02 bulegoa
Matematika eta bere Didaktika II	Elena Agirre Egoitz Salsamendi	elena.agirre@ehu.eus egoitz.salsamendi@ehu.eus	2.1 bulegoa PDI 01 bulegoa
Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika	Paloma Rodriguez Bego Errasti Txabi Arnal	paloma.rodriguez@ehu.eus bego.errasti@ehu.eus javierignacio.arnal@ehu.eus	B7 bulegoa B5 bulegoa B5 bulegoa

LEHEN HEZKUNTZA HIRUELEDUNA			
Natura Zientziak LHko Ikasgelan II	Aritz Ruiz	aritz.ruiz@ehu.eus	B9 bulegoa
Social Sciences and their teaching II	Aritza Sáenz del Castillo	aritza.saenzdelcastillo.ehu.eus	Office 1.3
Gorputz Hezkuntza eta bere Didaktika	Alfredo López de Sosoaga	alfredo.lopezdesosoaga@ehu.eus	2.11 bulegoa
Foreign language and its teaching	Larraitz Ariznabarreta Dorota Krajewska	larraitz.ariznabarreta@ehu.eus dorota.krajewska@ehu.eus	Office PDI 02 Office B4
Matemáticas y su Didáctica II	Asun Beitia Egoitz Salsamendi	asuncion.beitia@ehu.eus egoitz.salsamendi@ehu.eus	Despacho 2.3 Despacho PDI 02
Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika	Paloma Rodriguez	paloma.rodriguez@ehu.eus	B7 bulegoa

OHAR GARRANTZITSUA: irakasleen helbide elektronikoak **EZIN DIRA** tutoretza birtualak egiteko erabili. Horretarako, irakasle bakoitzak bere tutoretza-orduak ditu (ikastegiaren webgunean kontsulta daitezke).

MODULUAREN BERARIAZKO GAITASUNAK

M.1. Irakaskuntza-jarduerari bideratutako estrategia eta baliabide didaktikoak aztertzea eta alderatzea banaka nahiz taldeka, komunikazioaren eta informazioaren teknologiak erabilia.

M.2. Etapako curriculum arloetako proposamen didaktikoak diseinatzea, ezartzea, eta ebaluatzea jarduerari lotutako arazoen eta erronken gaineko gogoetak eginez eta ikasleen hezkuntza-beharrak, genero-berdintasuna, kulturartekotasuna eta giza eskubideak aintzat hartuz.

M.3. Komunikazio- eta adierazpen-trebetasunak hobeto menderatzea.

1. MODULU LANERAKO SARRERA

Modulu-lan honen asmoa **proiektuen bidezko metodologia** ezagutu eta baliatzen ikastea da, metodologia horren zehaztasun teorikoak ikasi eta jarduera praktikoekin harremanetan jarriz.

Oinarrizko gaitasunetan arreta jartzen duen curriculum dela eta, gelan gaitasun praktikoak sartu behar dira, era horretan errealtatean modu dinamikoan jarduteko. Gaitasun horiek orokorrak, funtzionalak, eraginkorrak, integratzaileak eta metakognitiboak dira.

Hurrengo orrialdeko eskeman ageri den moduan, lan-proiektuetan garatzen den metodologiari esker, Euskal Autonomia Erkidegoko 236/2015 dekretuan¹ aipatzen diren Lehen Hezkuntzako oinarrizko-zehar eta diziplina baitako gaitasunak garatu daitezke.

¹ 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2016ko urtarrilaren 15a, 141 alea, 268 orrialde. 2018ko urriaren 19an berreskuratua <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/01/1600141e.pdf>-tik

HITZEZ, HITZIK GABE ETA MODU DIGITALEAN KOMUNIKATZEKO KONPETENTZIA

Hitzezeko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala modu osagarrian erabiltzea, ganoraz eta egoki komunikatu ahal izateko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan.

IKASTEN ETA PENTSATZEN IKASTEKO KONPETENTZIA

Ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea, eta ikasitakoa mobilizatzea eta beste testuinguru eta egoera batzuetara eramatea, norberaren ikaskuntza modu autonomoan antolatzeko.

ELKARBIZITZARAKO KONPETENTZIA

Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasunez parte hartzea, eta norberari aitortutako eskubideak eta betebeharrak besteri aitortzea, norberaren zein guztion ongirako.

EKIMENERAKO ETA EKITEKO ESPIRITURAKO KONPETENTZIA

Ekimena izatea eta ekite-prozesua erabakitasunez eta eraginkortasunez kudeatzea testuinguru eta egoera pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan, ideiak ekintza bihurtzeko.

OINARRIZKO ZEHAR KONPETENTZIAK

IZATEN IKASTEKO KONPETENTZIA

Bizitzan zehar agertzen diren sentimendu, pentsamendu eta ekintza pertsonalez gogoeta egitea eta haiek sendotzea edo egokitzea, haien gaineko balorazioaren arabera, bere burua etengabe hobetuz pertsona osorik errealizatzen.



LAN PROIEKTUEK KONPETENTZIA HAUEK LORTZEN LAGUNTZEN DUTE



GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIA

Nork bere burua, bere taldea eta bere mundua ulertzea, gizarte-zientzien ezaupideak eskuratuz, kritikoki interpretatuz eta erabiliz, eta haien prozedurak eta metodologiak baliatzea, bizitzako ohiko egoeretan modu autonomoan jarduteko, herritar gisa, eta, hartara, gizarte guztiz demokratiko, solidario eta inklusibo bat garatzen laguntzeko.

DIZIPLINA BAITAKO KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

TEKNOLOGIARAKO KONPETENTZIA

Produktu eta sistema teknologikoak zentzuz garatzea eta erabiltzea, jakintza teknikoak eta beste adar batzuetakoak metodikoki eta eraginkortasunez aplikatuta, egoera interesgarriak ulertzeko eta konpontzeko eta produktu eta zerbitzu berriak eskaintzeko, eta emaitzen berri ematea, hobetzeko edo erabakiak arduraz hartzeko prozesuekin jarraitzeko.

ARTERAKO KONPETENTZIA

Hainbat kultura- eta arte-adierazpen ulertzea eta kritikoki baloratzea, garai eta erabilera anitzetakoak, faktore estetikoek pertsonen eta gizartearen bizitzan duten garrantziaz ohartzeko. Artearen hizkuntzak ezagutzea eta haien kodeak erabiltzea mezu artistikoak sortzeko eta haien bidez adierazteko eta komunikatzeko, ekimena, irudimena eta sormena erabiliz.

MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA

Jakintza matematikoa aplikatzea bizitzako premiekin zerikusia duten arazoak interpretatzeko, deskribatzeko, azaltzeko eta haiei erantzuteko, arloaren berezko pentsamendu- eta adierazpen-moduak eta tresnak erabiltza.

HIZKUNTZA- ETA LITERATURA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA

Hitzezeko eta idatzizko testuak egokiro erabiltzea —euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntza batean gutxienez—, bizitzako hainbat alorretako egoeratan, eraginkortasunez eta hizkuntza-aniztasuna errespetatuz. Literatura-hezkuntza garatzea ere bai, nork bere burua eta inguruko mundua hobeto ezaqutzeko.

ZIENTZIARAKO KONPETENTZIA

Jakintza eta metodologia zientifikoa modu koherentean, egokian eta zuzenean erabiltzea sistema eta fenomeno naturalak interpretatzeko, eta aplikazio zientifiko-teknologikorik esanguratsuenak erabiltzea hainbat testuingurutan, errealitatea ebidentzia zientifikoaren ikuspegitik ulertzeko, eta bizitzako alor eta egoera guztietan erabakiak arduraz hartzeko.

KONPETENTZIA MOTORRA

Jokabide motor autonomo, osasungarri eta sortzaile baten bitartez ideiak, balioak, sentimenduak eta emozioak egoki adieraztea bizitzaren esparru, egoera eta jarduera guztietan, baita gorputz- eta kirol-jardueretan ere, eta batzuen zein besteen adierazpenak interpretatzea eta baloratzea.

2. MODULU LANAREN METODOLOGIA

2.1. Lanaren helburua

Lan honen helburu nagusiak bi dira: batetik, proiektuen bidezko metodologia zertan den ikastea eta, bestetik, proiektu globalizatzaile baterako jarduerak proposatzea. Proiektu globalizatzaile horretan hainbat ezagutza arloren gaitasunak, edukiak, jarduerak, materialak eta ebaluazioa sartuko dira.

Ikasleok proposatzen dituzuen jarduerak **lehen zikloan** hurrek garatuko duten proiektu globalizatzaile batean txertatu behar dira, eta jarduera horiek ekarpen esanguratsu eta koherenteak egin beharko dituzte proiektu horren baitan.

Proiektuen inguruko eduki teorikoak, jardueren diseinua eta garapena, eta lanari buruzko hausnarketa orokorra honako hauetan islatuko da:

- a) **Proposatutako jarduerari buruzko txostena**
- b) **Jardueren ahozko aurkezpen edo simulazioa**
- c) **Proiektuen bidezko metodologiari buruzko azterketa idatzia**

Esan bezala, ikasleok proposatu beharreko jarduerak jada abian den proiektu globalizatzaile batean txertatu behar dira. Proiektu hori ongi ezagutu eta aztertzea da, beraz, zuen proposamenak diseinatzeko abiapuntua.

2019ko otsaila da, eta, Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikasle zarenaz, praktikan ari zara Laudio Latorroko ikastetxean. Konkretuki, Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleekin hasi zara lanean. Iritsi zarenean azaldu dizute jada martxan *Goazen itsasora!* izeneko proiektua. Izan ere, 2018ko urrian, ikasleek itsasoaren inguruko jakin-mina adierazi zuten klasean, eta, interes horri erantzunez, irakasle eta ikasleek erabaki zuten aipaturiko proiektua abian jartzea. Orduz gero, hainbat eta hainbat jarduera egin dituzte, eta ikasleak ikasgai guztien eduki eta kompetentziak lantzen ari dira.

Irakurri eta aztertu ongi proiektuaren zehaztasunak. Ikus 0) eranskina.

Proiektua emaitza onak ematen ari da, eta oraindik aste batzuk falta dira buka dadin. Jakina, zuri ere badagokizu proiektuan parte hartu eta ekarpenak egitea.

2.2. Lanaren hasierako pausoak

Modulu-lana bost ikasleko taldeek egingo dute (zifra hori ikasle kopuruaren arabera alda daiteke, baina beti ere irakasleena izango da azken hitza). Talde bakoitzak bi irakasle-tutore izango ditu. Proposatutako jarduerak tutoreen irakasgaien eduki eta kompetentziak landu beharko dituzte (gutxienez). Jarduerak, beraz, diziplinartekoak izan beharko dute eta goian aipatutako proiektu globalizatzailean txertatu behar dira.

Taldeek osatuta egon behar dute **urriaren 26rako**. Egun horretarako honako datu hauek adierazten dituen dokumentua bidali beharko da, k5lhgasteiz@gmail.com helbidera:

- taldearen izena
- kideak
- idazkaria
- helbide elektroniko ofizial bat

Practicum II-a egiten ari diren ikasleen betebeharra da, praktikak bukatu bezain pronto, irakasleekin hitz egin eta taldeak adostea.

Azaroaren 6rako tutoreen esleipena komunikatuko zaizue (tutoreen banaketa irakasleek eurek egingo dute).

2.3. Lanaren emaitza

Talde bakoitzak **diziplinarteko bi jarduera proposatu eta aurkeztu/simulatu** behar ditu. Jarduera horiek moduluko irakasgaietatik bi ukitu behar dituzte gutxienez (gogoratu tutoreen ikasgaiak izan behar direla).

Jarduera horiek gorago aurkeztu dugun proiektu globalizatailean txertatu behar dira, beti ere proiektuen bidezko metodologiaren inguruko teoria aintzat hartuz eta gure proiektuaren ezaugarrietara estuki egokituz.

Jardueren inguruko zehaztasunak **txosten idatzian** aurkeztuko dira (gehienez 10 orri). Txostenak honako hauek bildu behar ditu, gutxienez:

- Elkarrizketa simulatuak
- Ikasleen interesak zehaztea
- Jardueren helburua eta landuko diren konpetentziak
- Jarduerak proiektu orokorarekin eta amaierako produktuarekin duten lotura
- Jardueren denborazko sekuentzia
- Jardueren deskribapena
- Hausnarketa
- Bibliografia

Txostena entregatzeko data: apirilak 8-12.

Ahozko aurkezpena: maiatzak 22.

3. MODULU LANAREN EGITURA: 'Lehen Hezkuntzako gela baterako proiektua'

Modulu lanak lau fase izango ditu. Edonola ere, proiektuak lan egiteak etengabeko ikasketa eta berrikuntza lana eskatzen du, baita faseen arteko lotura estua ere. Hori dela eta, ezinbestekoa da formakuntza continuum gisa ulertzea, eta baita ikasleok ikasketa prozesua modu kritiko eta eraikitzailean autoerregulatzea ere.

MODULU LANAREN EGITURA FASEETAN AZALDUTA	
1. FASEA: Formakuntza	
Zer da proiektuen bidezko metodologia?	<ul style="list-style-type: none"> - Proiektuen bidezko irakaskuntza-ikaskuntzari buruzko informazioa bilatu. - Derrigorrean irakurri beharreko materialak, proiektuen bidezko esperientziak deskribatzen dituzten artikulak, proiektuen adibideak kontsultatu. - Jardunaldi pedagogikoetan parte hartu. - Proiektuen bidezko metodologia buruzko hausnarketa egin
2. FASEA: Proiektuaren Jarduerak	
2.1. Lanaren hasiera Emandako proiektua aztertzea, aurre-ezagutzak ateratzea eta kokapen kurrikularra	<ul style="list-style-type: none"> - Gidan aurki dezakezen proiektuaren nondik norakoak irakurri eta aztertu. - Gidaren 0 eranskinean dagoen elkarrizketa (2. atala) aztertuta, pentsatu: zer besterik jakin nahi dute gai horri buruz? Zuen ustez, gaiaren zer alderdi izango lirarteke interesgarriak LHko lehen zikloko haurrentzat? - Landu LHko 1. zikloko ikasleen jakintzak eta aurre ezagutzak. - 236/2015 Dekretua aintzat hartuz, bilatu 1. zikloko curriculumaren zein gaitasun eta eduki landu daitezkeen².
2.2. Jardueren definizioa	<ul style="list-style-type: none"> - Jarduerak haurrek aukeratu eta bideratu behar dituzte. Horretarako, elkarrizketa bana asmatu behar da, haurren interesak identifikatu eta bi jarduerak justifikatzeko. - Jarduerak definitu. Honelakoak izan daitezke: <ul style="list-style-type: none"> ✓ informazioa aurkitzekoak: iturriak adostu, nola antolatu, informazioa aurkitzeko teknikak (elkarrizketak, ikustaldiak, helduak kontsultatu, entziklopediak, Internet...) ✓ informazioa erabiltzekoak: baloratu, kontrastatu, alderatu, eskematizatu... ✓ behaketa eta zuzeneko esperientziakoak: irteerak, laginak hartu, laborategiko esperimenduak... ✓ adieraztekoak (komunikatzekoak): testu bat irakurri, horma-irudi bat aurkeztu, jarduera eguneroko errealitatean simulatu, abestu, dantzatu... ✓ ebaluatzekoak (kontuan izan metodologia honetan prozesu guztia, eta batez ere produktu desberdinak, ebaluagarriak direla).

² 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2016ko urtarrilaren 15a, 141. alea, 268. orrialde. 2016ko otsailaren 9an berreskuratua <http://www.jusap.ejgv.euskadi.eus/r47-bopvapps/eu/bopv2/datos/2016/01/1600141e.shtml> -tik.

<p>2.3. Jarduerak diseinatzea</p>	<p>Proposatzen diren bi jarduerak zentzuz beteak egon behar dute haurrentzat, eta hori lortzeko, batetik, gertuko errealitatearekiko lotura eduki behar dute eta, bestetik, diziplinarteko lotura esanguratsua ere bai.</p> <p>Jarduerak lotuta egon behar dute haurren bizitzarekin, sentimenduekin, interesekin, gustuekin, jakiteko gogoarekin, eta behar kognitibo, afektibo, fisiko eta komunikatiboekin.</p> <p>Gisa berean, jarduera horiek zentzua eduki behar dute proiektu globalaren baitan. Beraz, aintzat hartu behar dituzue hala proiektuaren ezaugarri guztiak nola proiektuaren amaierako (balizko) produktua.</p> <p>Jarduerak diseinatzean hainbat alderdi definitu eta garatu behar dira (ikus 3. fasean: txostena). Alde batetik, jardueraren justifikazioa eta ikasleen interesak (elkarrizketa) zehaztu behar dira, baita curriculumarekiko lotura ere. Beste alde batetik, jardueren garapena nola gauzatuko den deskribatu behar da, honetarako beharrezko datu guztiak emanaz. Amaitzeko, proiektuen bidezko metodologiaren inguruko hausnarketa egin behar da, baita zuen lanaren analisi kritiko bat ere.</p>
<p>3. FASEA: Txostena</p>	
<p>Nola islatu egindako lana txostenean?</p>	<p>Txostenak 10 orrialde izango ditu gehienez. Bertan, modu sintetikoan, honako hauek adierazi beharko dituzue:</p> <ol style="list-style-type: none"> Proiektuen bidezko metodologiaren oinarri teorikoa. Bibliografian oinarritu. Curriculumarekiko lotura: Heziberri 2020. Oso zehatza behar du izan. Bi jarduera hauek proposatu izanaren motibazioa. Jardueren helburuak eta landuko diren kompetenziak: zer, nola eta zertarako galderei erantzunez. Horretarako zuen hitzak erabili. Jarduerak proiektu globalarekin eta amaierako produktuarekin dituzten loturak. 1A eranskinaren taula bete beharko duzue proiektuaren denbora-sekuentzia islatzeko. Taula horretan, era laburrean azaldu behar dira nola lotu diren bi jarduerak, urratsak, jakintza arlo bakoitzeko gaitasun eta eduki espezifikoak, elkarrekintza mota eta denbora. (taula). 1B eranskina erabiliz, jardueren deskribapen laburra egin. Hau da, saio bakoitzaren garapena zehaztuko duzue, prozedura metodologikoak/parte hartzeko erabilitako moduak, ikasleen taldeak, espazioak, materialak eta erabilitako denbora, etab. (ezaugarri batzuk jada 1A eranskinean islatu dituzue). Hausnarketa: proiektuen bidezko metodologiari buruzko hausnarketa egin beharko duzue, bi alderdi kontuan hartuz. Lehenik, etorkizuneko maisu/maistra gisa, zuen proiektuaren diseinua eta emaitzak baloratu behar dituzue; puntu indartsuak eta ahulak azpimarra ditzakezue, proiektua berdinean egingo ote zenuketen galdetu zeuen buruei, koherentzia, ikasitakoa (gai/diziplina bakoitzaren ikuspegitik edo integratutako ikuspegitik) eta azkenik, beste proiektu batzuk egiterakoan zer hobetu litekeen proposatu. Ondoren, Lehen Hezkuntzako graduako ikasle legez, lan honetan izan duzuen ikaskuntza prozesuari buruz hausnartu behar duzue, metodologia honen inguruan jada bazenkitena eta ikasi duzuen kontrastatu eta bere erabilgarritasun didaktikoa kritikoki aztertuz. Bibliografia: dagozkion arau formalak zorrotz beteta.

4. FASEA:	Aurkezpen edo simulazioa
Nola aurkeztu/simulatu gure lanaren emaitza?	Behin jarduerak diseinatu eta garatuta, eta txostena entregatuta, ahozko aurkezpena edo simulazioa egingo dugu (beti ere, ikastegiaren baldintzetara egokituz). Berau hainbat modutan egin ahal izango da, eta printzipioz ikasleen esku geratuko da nola egin erabakitzea. Lanaren aurkezpen formal bat izan daiteke (adibidez, irratsaioa, bilera, kontaketa, mikro-klasea...), baina baita jarduera baten simulazioa ere.

4. TXOSTENA AURKEZTEKO ARAU FORMALAK

- Azala: moduluaren izena, lanaren izenburua, ikasturtea, graduko maila, egileak (izena eta bi abizen).
- Letra-tipoa: Times New Roman, neurria: 12.
- Paragrafoa: - Lerroartea: 1,15.
- Paragrafoen arteko tartea: 6.
- Marjinak: 2,5 cm goian eta ezkerrean; 2,5 behean eta eskuinean edo prozesadoreek lehenetsita dutena.
- Paragrafoen antolaera: justifikatuak (eskuin eta ezker lerrokatuta).
- Lanaren luzera: gehienez 5 orri DIN-A4an, alde bietatik inprimatuta, azala eta bibliografia eta eranskinak kontatu gabe.
- Aipu bibliografikoak: 6. edizioko APA arauak bete beharko dituzte.

OHARRA: Txostenaren idatziko kopia emateaz gain, helbide honetara ere bidaliko da tutoreen izenak eta taldekideen abizenak agerraraziz: k5lhgasteiz@gmail.com

5. EGITEKOEN KRONOGRAMA

2018-2019 IKASTURTEKO KRONOGRAMA	
Irailak 28	K5 moduluaren aurkezpena
Urria	Formazioa: astez aste (lau saio)
Urriak 26	Taldeak zehaztea
Azaroak 6	Tutoreak esleitzea
Azaroak 20	Lehenengo jarduera pedagogikoa: Nekane Otsoa
Abenduak 18	Azterketa: etengabeko ebaluazioa (1. deialdia)
Urtarrilak 7-11	Bigarren jarduera pedagogikoa
Urtarrilak 21-23	Lehenengo txostena entregatzea
Martxoak 20-22	Lehenengo txostenaren feedbacka
Apirilak 8-12	Azkeneko txostena ematea
Maiatzak 22	Azterketa: etengabeko ebaluazioa (2. deialdia) Ahozko aurkezpena: etengabeko ebaluazioa Azterketa: azken ebaluazioa (1. deialdia)
Ekainak 19	Azterketa: azken ebaluazioa (2. deialdia)
Zehazteke	3. jardunaldi pedagogikoa

Ohar garrantzitsua: data guztiak alda daitezke prozesuaren baldintzen arabera.

6. MODULU LANAREN EBALUAZIOA

6.1. EBALUAZIOAREN ALDERDI OROKORRAK

Bi ebaluazio mota egongo dira, bata *etengabeko ebaluazioa* egiten duten ikasleentzat eta bestea *azken ebaluazioa* egiten dutenentzat. Etengabeko ebaluazioa egin ahal izateko ezinbestekoa izango da:

- Ikasgai guztietan matrikulatuta eta gutxienez ikasgai lautan etengabeko ebaluazioa egitea
- Abenduko azterketa egitea
- Jardunaldi pedagogikoetan parte hartzea
- **Urriaren 26rako** talde baten parte izatea
- Eta, oro har, klaseak behar bezala aprobetxatu eta gomendioen eskutitzean ezarritako arauen arabera jokatzea:
(<https://www.ehu.eus/documents/5299588/5638011/MODULUETARAKO+ETA+ELKARBIZITZARAKO+AKORDIOEN+GIDA.pdf/33f76c27-5df9-3731-181a-6a197db4b30c>)
- Modulu-lanaren kalifikazioak ez du zertan berdina izan taldeko ikasle guztientzat. Ikasle bakoitzaren jarreraren eta lanari egindako ekarpenaren arabera izango da, eta hau amaierako kalifikazioan islatuta geratuko da

Gutxieneko horiek betetzen ez dituzten ikasleak azken ebaluaziora pasako dira. Zalantzarik izanez gero, galdetu zuen tutoreei.

a) Etengabeko ebaluazioa duten ikasleen kasuan:

- Gida honetan zehaztutako kronograma izango da ikasleen erreferentzia.
- Modulu-lanaren kalifikazioak ez du zertan berdina izan taldeko ikasle guztientzat. Ikasle bakoitzaren jarreraren eta lanari egindako ekarpenaren arabera izango da, eta hau amaierako kalifikazioan islatuta geratuko da.
- Modulu-lanaren kalifikazioa irakasgai bakoitzeko kalifikazioaren %20 izango da. Kalifikazio hau moduluko irakasle guztiek adostutakoa izango da eta irakasgai bakoitzeko ebaluazioari gehituko zaio (baldin eta irakasgaia gainditu bada). Lana gainditu bada eta irakasgaia ez, irakasgaia gainditu arte gordeko da lanaren nota.
- Modulu lana lehen deialdian gainditzen ez duten ikasleek hurrengo deialdian gainditu beharko dute.
- Etengabeko ebaluazioa egiten duten ikasleen kasuan, lan modularraren nota hiru zatiren arabera osatuko da*:
 - txosten idatziaren ebaluazioa (0,9/2)
 - aurkezpen/simulazio praktikoaren ebaluazioa (0,3/2)
 - marko teorikoaren azterketa bidezko ebaluazioa (0,8/2).

* K5 modulu lanaren kalifikazioaren batura egiteko, hiru atalak gainditu behar dira. Hortaz, ezinbestekoa da hiru atalak gainditzea K5 modulua aprobatu ahal izateko.

b) Azken ebaluazioa duten ikasleen kasuan:

- Ikasle hauek irakasgai guztiak biltzen dituen azterketa* idatzi baten bidez ebaluatuko dira (moduluaren %100).
- Erasmusen edo gisako programa batean parte hartu dutenek azken ebaluazioa egingo dute.
- Lan modularrari buruzko proba irakasgai bakoitzeko azken kalifikazioaren %20 izango da.
- Azterketa idatziak bi atal izango ditu. Lehenengoa derrigorrezko bibliografiarekin loturiko alderdi teorikoei eskainia izango da; bigarrena, berriz, teoriaren aplikazioari lotua.
- **K5 modulua azterketaren kalifikazioaren batura egiteko, bi atalak gainditu behar dira. Hortaz, ezinbestekoa da bi atalak gainditzea K5 modulua gainditu ahal izateko.**

6.2. KALIFIKAZIOA (ETENGABEKO EBALUAZIOA DUTEN IKASLEENTZAKO)

6.2.1. Txosten idatziaren ebaluazioa (amaierako notaren %45)

Txosten idatziak gorago aipaturiko zehaztasunak bete beharko ditu, eta dagokion egunerako entregatuta egon. Txostenarekin batera taldearen autoebaluazio fitxa entregatu beharko da (ikusi 2. eranskina). Honako alderdiak hartuko dira batez ere kontuan:

- Eskatutako atal guztiak egoki osatuak egotea.
- Atalen arteko koherentzia eta euren baitako kohesioa.
- Jardueren originaltasuna, egokitasuna eta interesa.
- Jarduerak proiektuan zentzuz kokatuta egotea eta behar bezala erantzutea ikasleen behar eta interesei.

***OHAR GARRANTZITSUA:** Zuzentasuna ezinbesteko eta oinarrizko baldintza da. Tutoreen iritziz txosten idatziak eskakizun formalak bete ezean (aurkezpena, APA arauak, ortografia eta/edo gramatika -5 akats larri gehienez-), EZ dute lana zuzenduko eta kalifikazioa "Ez gai/Suspentso" izango da.

6.2.2. Aurkezpen/simulazioaren ebaluazioa (amaierako notaren %15)

Ahozko aurkezpenaren ebaluazioa irakasleek eta ikasleek egingo dute (dagokion momentuan zehaztuko den proportzioarekin). Aurkezpenen formatua librea izango da eta 15 minutuko iraupena izango du. Horretaz gain, aurkezpena prestatu, galderak egin eta ikasleek ebaluazioa egiteko beste 10 minutu egongo dira.

Aurkezpen edo simulazioan honako alderdi hauek baloratuko dira batez ere:

- Azalpen/simulazioaren argitasuna.
- Originaltasuna eta adorea.
- Diskurtsoa bateratua eta zentzuzkoa izatea.
- Erregistroaren egokitasuna eta estiloaren aproposa testuingururako.
- Hizkuntzaren zuzentasuna, zorrotasuna eta sexismorik eza.
- Adierazpenaren argitasuna eta arreta lortzeko gaitasuna.
- Taldekide guztien parte hartze orekatua.
- Denboraren eta espazioaren kudeaketa egokia.

6.2.3. Marko teorikoaren azterketa bidezko ebaluazioa (amaierako notaren %40)

Etengabeko ebaluazioa egiten duten ikasleen azterketa derrigorrezko bibliografiaren gaineko test motako azterketa izango da.

Ezinbestekoa da azterketa gainditzea modulua aprobatu ahal izateko.

7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Derrigorrezko bibliografia

Hernández, F. (2000). Los proyectos de trabajo. *Educación*, 26, 39-51. 2016ko irailaren 9an berreskuratua <http://ddd.uab.cat/pub/educar/0211819Xn26/0211819Xn26p39.pdf> -tik
La Cueva A. (1998). La enseñanza por proyectos: ¿límite o reto?. *Revista Iberoamericana de Educación*, 16, 15-23. 2016ko irailaren 9an berreskuratua <http://www.rieoei.org/oeivirt/rie16a09.htm> -tik

Hernández, F. eta Ventura, M. (2010). Curriculum lan-proiektuen bidez nola antolatu: ezagutza kaleidoskopio bat da. Leioa: UPV/EHU.

Majó, F. eta Baqueró, M. (2014). *8 ideas clave. Los proyectos interdisciplinarios*. Bartzelona: Graó.

Perrenoud, P. (2000). Aprender en la escuela a través de Proyectos: ¿Por qué?. ¿Cómo?. *Revista de Tecnología Educativa*, 3, 311-321. 2016ko irailaren 9an berreskuratua http://www.unige.ch/fapse/SSE/teachers/perrenoud/php_main/php_2000/2000_26.html -tik

Rodríguez, P., Ugalde, A. I., Lopez de Sosoaga, A. & Rico, A. (2016) Eskola-gaitasunak eta euskal curriculum lehen hezkuntza graduaren proiektuen bidezko metodologia. UPV/EHU. 2016ko irailaren 9an berreskuratua <http://testubiltegia.ehu.es/Eskola-gaitasunak-lh> -tik

Bibliografia osagarria

Anaut, L. (2004). *Amara Berri sistemaren inguruan*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Arias Correa, A. eta Rial Hernández M. D. (1996). *Traballar por proxectos nas aulas de infantil e primaria*. Vigo: Xerais.

Arias-Correa, A.; Arias Correa, M. D.; Navaza Blanco, M. V. eta Rial Fernández, M. D. (2009). *O traballo por proxectos en infantil, primaria e secundaria*. Santiago: Xunta de Galicia. 2017ko urriaren 11an berreskuratua. https://www.edu.xunta.es/ftpserver/portal/DXC/9002463-Proxectos_Web.pdf

Carmona, G et. al. (1993). *Método de propuestas en educación infantil*. Sevilla: Junta de Andalucía.

Diez Navarro, C. (1995). *La oreja verde de la escuela*. Madril: De la Torre.

Dominguez Chillón, G. (2000). *Proyectos de trabajo: una escuela diferente*. Madril: La Muralla.

Feller R.J. (2007). 110 misconceptions about the ocean. *Oceanography* 20, 170-173. 2018ko urriaren 9an berreskuratua. https://tos.org/oceanography/assets/docs/20-4_feller.pdf

Garriga, N.; Pigrau, T. eta Sanmartí N. (2012). Cap a una pràctica de projectes orientats a la modelització. *Ciències*, 21, 18-28. 2017ko urriaren 11an berreskuratua. https://ddd.uab.cat/pub/ciencias/ciencias_a2012m3n21/ciencias_a2012m3n21p18.pdf

Gómez, M.; Carbonell, L. (1993). Los proyectos de trabajo y el aprender a aprender en educación infantil. *Aula*, 11, 38-44.

Hernández, F. (1996). La globalización mediante proyectos de trabajo. *Cuadernos de Pedagogía*, 155, 54-59.

Hernández, F. (1994). La organización del currículo por proyectos de trabajo. Bartzelona: Graó.

Hernández, F. & Ventura, M. (1998). *La organización del currículum y proyectos de trabajo. Es un calidoscopio*. Bartzelona: Ice-Grao, 7a Ed. Barcelona. 2016ko irailaren 9an berreskuratua http://ww2.educarchile.cl/UserFiles/P0001/File/los_proyectos_de_trabajo.pdf -tik

Lara, E. (2008). Proyectos de trabajo: Metodología en primaria. *Innovación y experiencias educativas*, 7, 1-12.

López de Sosoaga, A.; Ugalde, A. I.; Rodríguez-Miñambres, P.; Rico, A. (2015). La enseñanza por proyectos: una metodología necesaria para los futuros docentes. *Opción*, (31) Especial 1, 395-413.

Otsoa Abrisketa, N. (2013). Construimos una noria. *Aula de Innovación Educativa* 226-27, 69-74.

de Pablo, P. E. eta Vélez, R. (1993). Unidades didácticas, proyectos y talleres. Madril: Alhambra-Longman.

9. INTERNET BALIABIDEAK

- Lemoiz herri-eskola. <https://sites.google.com/site/lemoizeskola2013/home/lehen-hezkuntza/1-zikloa>
- Trabajando por proyectos en infantil y primaria usando TIC. <http://recursos.cevindalo.es/moodle/course/view.php?id=155>
- Antzuola herri-eskola. <http://www.antzuola.hezkuntza.net/web/guest/helburu-orokorrak>
- Amara Berri sistema. <http://amaraberri.org/topics/sistema/>
- Five-year-olds pilots their own project-based learning. <http://www.edutopia.org/kindergarten-project-based-learning-video>
- Hamaika haizetara. <https://sites.google.com/site/hamaikahaizetaracast/>
- Lankidetzaren proiektuak. http://www.eskola20.euskadi.net/web/guest/presentacion_proyectos
- Zientzia Hezkuntza Ekimena. <https://sites.google.com/site/zientziahezkuntzaekimena/>
- Trabajo por proyectos en primaria. <http://proyectosenprimaria.blogspot.com.es/>
- Hik Hasi proiektuak. <http://www.hikhasi.com/proiektuak>
- “The Project Method”: Child-Centeredness in Progressive Education. <http://historymatters.gmu.edu/d/4954/>
- Proyectos de trabajo RED RIECU <http://www.uco.es/riecu/>
- EAE-ko Curriculum Dekretuak. http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-573/eu/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_2_proyec/bigarren_egitasmoa.html
- [Beyond penguins and polar bears: Ozeanoari buruzko aurreideiak zerrendatzen duen web orria: https://beyondpenguins.ehe.osu.edu/issue/polar-oceans/common-misconceptions-about-oceans](https://beyondpenguins.ehe.osu.edu/issue/polar-oceans/common-misconceptions-about-oceans)

10. ERANSKINAK

1. TESTUINGURUA

1.1. IKASTETXEAREN EZAUGARRIAK

Latorroko Ikastetxea Laudion kokatua dago. Ikastetxe publikoa da eta herriaren erdigunetik bost minutura dago. Laudio Arabako iparraldeko udalerrria da, Bizkaiarekin muga egiten duena. Aiarako eskualdeko herri honek 20.000 biztanle inguru dauzka eta, Arabako bigarren hiri handiena da, Gasteiz hiriburuaren atzetik.

Ikastetxeko proiektuak hainbat ardatz biltzen edo jarraitzen ditu, eta horiek hiruhileko bakoitzean aztertzen dituzte, erabakiak hartuz zerbait aldatu behar bada. Kasu honetan, honakoak dira proiektuaren ardatz nagusiak:

- Ikasleen artean euskararen erabilera eta euskararekiko jarrera ona bultzatzea komunikaziorako gaitasuna garatzeko.
- Formakuntza: irakurketa eta idazketa konstruktibismoaren ikuspegitik, eta heziketa berezian inplikaturik dagoen irakasleriaren formakuntza.
- Hobekuntza plana: ikasleen hizkuntza kompetentzia (ulermena) eta kompetentzia matematikoak (problemen ebazpena eta buruzko kalkulua) hobetzea, hainbat jardueraren bitartez.
- Hizkuntzen curriculuma betetzea ikasleen komunikaziorako gaitasuna garatzeko (hirueledunak sortuz).
- Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan proiektuen bidezko metodologia ezartzea, ikasleen oinarritzko kompetentziak garatzeko.
- Jantokian, ikasleen jarrera eta portaera hobetzea, gizarteko eta herritartasunerako gaitasuna garatzeko.

Ardatz horiek guztiak aztertuta, ikusten da hala ikasleen hezkuntza eta garapena nola gizartea bera kontuan hartzen dituztela proiektua edo ikastetxe plana sortzean. Izan ere, aspektu horiek lantzeko kompetentziak garatu nahi dituzte. Gainera, ardatz batzuen kasuan, eskola komunitatearen eta familien arteko elkarrekintza beharrezkoa dela ikusten da, hala nola, euskararekiko jarrera ona bultzatzeko edota jantokiko jarrera aldatzeko.

1.2. GELAREN EZAUGARRIAK

Gelari dagokionez, lehen zikloko 2. mailako klase bat da, 20 ikasle dituena, 11 neska eta 9 mutil. Orokorrean, euskararen maila ertaina da, ikasletik ikaslera desberdintasunak egon badauden arren. Arlo kognitiboari helduta, nabaritzen da ikasle batzuek beste batzuek baino heldutasun maila altuagoa dutela eta orokorrean neskak gailentzen direla.

Antzeman daiteke ikasleen ama-hizkuntza gaztelania dela, gehienei asko kostatzen baitzaie klasean euskaraz hitz egitea, eta are gehiago klasetik kanpo daudenean. Hala ere,

³Simulazio hau 2016-2017 ikasturteko ikasle batzuek egina da, eta debekatuta dago euren baimen espliziturik gabe lana osoki zein atalka zabaltzea, salbu eta K5 moduluaren barruko jardueretarako ez bada.

euskaraz hitz egiteko saiakera hori ikusten da. Beraz, esan genezake euskara bigarren mailan uzten dutela eta haientzat errazena dena erabiltzen dutela. Kanpotik etorritako familiadun baina hemen jaiotako ikasleak gutxi izan arren, eskolan atzerriko hizkuntzak entzuten dira noizean behin. Hala ere, ikasle hauetariko askok gaztelania menperatzen du.

Ikasleen familien maila sozio-ekonomikoari erreparatuz, gehiengoa erdi mailakoa da; salbuespenak beti dauden arren, goi eta behe mailakoren bat ere bai baitago. Eskola inguruko auzo berria dela eta, gurasoek seme-alabak gertuen daukaten eskolan matrikulatzen dituzte.

2. PROIEKTUAREN PLANIFIKAZIOA

2.1. GAIAREN AUKERAKETA ETA JUSTIFIKAZIOA

Oporretatik bueltan gela osoa biltzen da eta hizketan hasten dira:

- Ane: Oporretan itsasoan egon naiz
- Maialen: Ni ere Aqualandian.
- Leire: Baina hori ez da itsasoa
- Maialen: Bai, olatu handiak zeuden
- Eñaut: Itsasoan hondartza dago.
- Maialen: Ba Aquaparken boleibolean jolasten da
- Ane: Baina hori ez da hondartza. Hondartzan gazteluak egiten dira eta kuboekin "flanes". Gainera, ura irentsi nuen eta gazia zegoen.
- Maialen: ba Aquaparken ura normala zen.
- Ane: Ikusten? Andereño, zergatik itsasoaren ura gazia da?
- Irakaslea: Agian ikertu beharko genuke, ezta?
- Ikasle oro: Bai...!
- Aitor: Behin telebistan ikusi nuen irla handi bat itsasoan zaborrarekin eta plastikoekin.
- Leire: Ez, itsasoan arrainak daude!
- Antton: Ez, Leire! Arrainak bakarrik kosta aldean bizi dira.
- Markel: Nire aitonak arrainak hartzen ditu kaña batekin.
- Nagore: Baina hori ez da. Sare handiak erabiltzen dituzte.
- Markel: Ba, ez...! Aitonak *barku* bat du eta txinxorro bat ere bai.
- Luca: Andereño, zer da "txinxorro"?
- Markel: barku txiki bat.
- Irakaslea: hori da, Markel. Ontzi txiki bat portutik ontzi handiago batera joateko.
- Leire: Eta zer da portu bat?
- Ane: Barkuak uzteko lekua!
- Markel: Eta aitonak arraun egiten du eta amuak prestatzen ditu.
- Luca: Amuak? Andereño, ez dakit zer den hori.
- Ane eta Leire (elkarri begiratu ostean): Andereño, andereño... Itsasoaz gauza gehiago jakin nahi dugu. Mesedez, proiektua egiteko!
- Irakaslea: gainontzekoak itsasoari buruzko proiektua egiteko prest zaudete?
- Gainontzekoak: Bai...!

2.2. ZER DAKITE HAURREK GAI HONI BURUZ?

Ozeanoak leku misteriotsuak dira. Itsasoarekin dugun esperientzia hondartzarako edo aquariumeko bisitetan oinarritzen da askotan. Bestalde, liburuetatik, telebista programetatik edo pelikuletatik ere hartzen dugu itsasoari buruzko informazioa. Horregatik, ohikoa da itsasoko animaliei buruz edo olatuei buruz zerbait jakitea, baina normalean gutxiago dakigu korronteez edo itsasoak gure planetaren klima erregulatzeko duen paperaz.

Ozeanoei buruzko Alfabetizaziorako Sarea (jatorriz Ocean Literacy Network⁴) zazpi elementu nagusi definitzen ditu ozeanoei buruzko alfabetizazioaren inguruan:

1. Lurrak ezaugarri anitzetako ozeano handi bakarra du.
2. Ozeanoa eta han dagoen biziak baldintzatzen ditu Lurraren ezaugarriak.
3. Ozeanoaren eragina eguraldi eta kliman garrantzitsua da.
4. Ozeanoari esker Lurra bizitzeko lekua da.
5. Ozeanoak biodibertsitate eta ekosistema anitzak mantentzen ditu.
6. Ozeanoak eta gizakiok ezinbestez loturik gaude.
7. Ozeano gehiena ez dugu ezagutzen.

Printzipio hauek garrantzitsuak izan arren, ez dira hain ulergarriak lehen hezkuntzako ikasleentzat. Lehen aipatutako sarearen web orrian baliabide didaktikoak daude ozeanoari buruz ikasteko.

2.1. puntuan emandako elkarrizketa aztertuz, pentsa ezazue:

- zer dakite haurrek?
- zer gehiago jakin nahiko dute?

Galdera horien erantzunek izan behar dute jarduerak egiteko abiapuntua.

1 a) ERANSKINA. PROIEKTUAREN JARDUERAK: DISEINUA ETA SEKUENTZIA

JARDUERAREN IZENBURUA eta MOTA	JARDUERAREN URRATSAK	DIZIPLINA BAITAKO KOMPETENTZIAK Zer, nola eta zertarako (zuen hitzak)	EDUKIAK Jakintza-arloa	ELKARREKINTZA mota eta DENBORA

1 b) ERANSKINA. JARDUERA BAKOITZAREN GARAPENA DESKRIBATZEA:

- Jardueraren **IZENBURUA** (haurrentzako erakargarria)
- Jarduera **MOTA** (informazioaren erabilera, behaketa, esperimentazioa,...)
- Jardueraren **GARAPENA** (aurreikus daitekeena), honako hauek azalduz:
 - ✓ **Urratsen** deskribapena, jarduerak dituen **faseak**
 - ✓ Ikasleen **elkartzea**
 - ✓ Irakaslearen eta ikasleen egitekoak/ **rolak**
 - ✓ **Denboraren** eta **espazioaren** antolaketa
 - ✓ Erabilitako **materialak**

2. ERANSKINA. TALDEAREN AUTOEBALUAZIOA (Txostenarekin batera entregatzeko)

TALDEAREN IZENA:

A. PROZESUAREN EBALUAZIO KUALITATIBOA:

Talde bakoitzaren ekarpena ebaluatzeko erabil itzazue ondoko kategorien hauek:

B= Baxua

E = Erdikoa

A = Altua

OA = Oso altua

1. Ikertu eta informazioa jaso.
2. Ezarritako atazetan parte hartu eta bukatu.
3. Amaierako testua gainbegiratu.

IZENA	1	2	3	EBALUAZIO GLOBALA

B. PROZESUAREN EBALUAZIO KUANTITATIBOA:

% erabiliz taldekide bakoitzaren ekarpena adierazi. Ekarpene guztien batura **100ekoa** izango da.

IZENA	TALDEKIDE BAKOITZAREN EKARPENA (%)
1-	
2-	
3-	
4-	

C. ANALISIA ETA HAUSNARKETA. Ondoko taula hau bete:

Gure funtzionamendurako hobetzeko proposamenak aplikatu al ditugu? Eraginkorrak izan al dira? Ez ba da aldaketarik egon, arrazoitu.

3. ERANSKINA					
IDATZIZKO AURKEZPENERAKO EBALUAZIO TXOSTENA (%45a)					
EBALUATUTAKO ALDERDIA	JARDUERAREN MAILA				Puntuazioa (0.9)
	Bikaina (9-10)	Oso ona (7-9)	Onargarria (5-7)	Ez onargarria (0-5)	
Haurren bizitzarekin, sentimenduekin, interesekin, gustuekin, jakiteko gogoarekin, behar kognitibo, afektibo, fisiko eta komunikatiboekin lotzea	Ikasleen interesak, ezaugarriak eta beharrak oso ongi errespetatu dira.	Ikasleen interesak, ezaugarriak eta beharrak egoki errespetatzen dira.	Azaletik errespetatzen dira ikasleen interesak, ezaugarriak eta beharrak.	Ez dago loturarik ikasleen interes, ezaugarri eta beharrekin.	/0.2
Kokapen curricularra zehaztea	Harreman estua dago bi arloetako gaitasunen, edukien eta ebaluazio irizpideen artean.	Harremana dago bi arloetako gaitasunen, edukien eta ebaluazio irizpideen artean.	Gabezia batzuen ondorioz zaila da bi arloetako gaitasunen, edukien eta ebaluazio irizpideen arteko erlazioa.	Koherentzia falta da bi arloetako gaitasunen, edukien eta ebaluazio irizpideen artean.	/0.2
Proiektuaren garapen dinamikoa ahalbideratuko duten proposamen didaktiko kateatuak diseinatu dira	Proposamen didaktikoek lerro gidatzaile bat dute; honek ematen dio gorputza proiektuari eta proiektua dinamikoki garatu daiteke.	Proposamen didaktiko gehienek lerro gidatzaile bat dute eta honek uztartzen ditu.	Proposamen batzuek lerro gidatzaile bat dute.	Proposamen didaktikoek ez dute inolako lerrorik eta aplikazioa justifikatu gabe dago/ez du zentzurik.	/0.15
Protagonismoa ikasleek izateko moduan egituratu da proiektua	Proposamen didaktiko guztiak, ebaluazioa barne, ikasleen interesetik sortu dira eta hauen parte hartze aktiboarekin garatzen dira.	Proposamen didaktiko gehienek ikasleen protagonismoa errespetatu dute.	Gai nagusia ikasleen interesetik sortu den arren, proposamen didaktikorik gehienak irakasleek antolatu eta zuzendu dituzte.	Proposamen didaktiko guztiak irakasleek antolatu eta zuzendu dituzte.	/0.15
Pentsamendu kritikoa garatzea	Proiektuen bidezko metodologia sakonki hausnartzea	Metodologiaren indarrak eta ahuleziak azpimarratzen ditu	Proiektuen bidezko metodologia azaletik hausnartzea	Metodologiaz hausnartzean, koherentzia eza nagusitzen da.	/0.2

4. ERANSKINA AHOZKO AURKEZPENERAKO EBALUAZIO TXOSTENA

Proiektuaren titulua:

Aurkezleak (aurkeztu duen taldea edo taldekideak):

Ebaluatzaileak (ebalatu duen taldea edo taldekideak):

EBALUAZIO IRIZPIDEAK	Bikain (9-10)	Oso ondo (7-9)	Onesgarria (5-7)	Ez onesgarria (0-5)
Azalpen argi eta antolatua.				
Diskurtso bateratu eta zentzuzkoa.				
Erregistro eta estilo aproposa testuingururako, hizkuntzaren erabilera ez sexista eginaz.				
Ikusle-entzuleei zuzentzea boz argi eta intonazio zuzenaz, begirada eta gorputz jarrera egokia zainduaz.				
Baliabideen eraginkortasuna.				
Taldekide guztien parte hartze orekatua.				
Aurkezpen atsegin eta adoretsua.				
Denboraren kudeaketa eraginkorra.				
Proiektuaren balizko zailtasunak, gabeziak eta hobetzeko proposamenak.				

KALIFIKAZIOAREN JUSTIFIKAZIOA

INDARGUNEAK (alde onak):

AHULEZIAK (alde txarrak):

AZKEN KALIFIKAZIOA